

NAFARROAKO LEHENDAKARIAREN AGERRALDIA GOBERNUKO KONTSEILARI BERRIEK KARGUAZ JABETU DIRELA ETA

2012ko ekainaren 23a

Nafarroako Parlamentuko lehendakari jauna

Nafarroako Gobernuako Kontseilariak

Agintariak

Jaun-andreak

Nafarroako Jauregiko Tronuaren Areto historiko honek, hainbat gertaeraren gune dena, Nafarroako Gobernuako lau kontseilari berrik karguaz jabetzeko bildu gaitu, eta Foru Komunitatean etorkizuna bideratzen lagunduko dutenak legealdia amaitu bitartean. Zortzigarrena Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoa indarrean sartu zenetik.

Nafarroako Gobernuak gaur sartu diren lau kideek beste hainbeste pertsona ordeztu dituzte, eta azken horiei publiko eta zintzotasun osoz, hamabi hilabetez beren karguetan egin duten lanagatik eskerrak eman nahi dizkiet aurrekontuan izandako urritasunengatik eta hartutako erabaki desatseginengatik.

Eta hemen, utzidazue aitorten berezi bat egiten orain arte Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilaria izan den Alvaro Miranda-ri, erakutsi duen leialtasunagatik eta Nafarroaren alde erakutsitako eskuzabaltasunagatik eta egindako lanagatik.

Duela ia urtebete gobernuko formula berri bat aurkezten genuen ilusioz beteta Nafarroako bi alderdi nagusien arteko ekimen bateratutik sortua baina, zoritxarrez, formula horrek huts egin du.

Ez da erruak banatzen hasteko unea. Alderantziz. Egonkortasuna bilatzen ahalegin handia egiteko unea da.

Gure historia berrian, gehiengo parlamentarioa izan duten gobernuak salbuespena izan dira. Ohikoena, Nafarroako Gobernuan PSN edo UPN egon, lankidetzan aritzea izan da hainbat formula erabiliz. Eta lankidetzaren horrek egonkortasuna eta aurrerabidea eman dizkio gure lurraldeari.

Nafarroak bizi duen krisi ekonomikoaren egungo egoerak, oraindik eta ahalegin handiagoz, indar parlamentarioen artean ahalik eta akordio handiena bilatzea behartzen gaitu. Izan ere, une honetan hauteskunde batzuk gure Komunitateko arazo larriak konpondu baino, areagotuko egingo zituen.

Horregatik, akordioa eta adostasuna bilatzeak izan behar du

Shakespeare-k zioen “zenbait erorketa egoera zoriontsuago batera altxatzeko bideak zirela”, eta ikuspegi horrekin lan egin behar dugu une honetatik aurrera.

Gobernu bat horixe bera da, gobernu bat. Talde kohesionatua, bertako kideen arteko leialtasunak bereizarazten duena, non banako talentua helburu komunaren zerbitzura jartzen den.

Konfiantza sortu behar dugu profesionaltasuna eta baikortasuna igorritz, eta ziur nago lortuko dugula gure gaitasunak osatuz eta gure jarduera gardentasunean, zintzotasunean eta leialtasunean oinarrituz.

Zuek guztiok bizi-kalitate ona ematen dizuen ibilbide profesional bikaina duzue. Horregatik, zuen aurrerapausoa baloratzen dut eta zuen zerbitzu publikoaren bokazioa Nafarroaren alde lan egiteko

Ardura garrantzitsuak onartu izana benetan eskertzen dizuet, zalantzarik gabe, demokraziaren trantsizioko urteetatik, Nafarroarentzat une zailenak diren garai honetan.

Aldez aurretik, zuen familiei barkamena eskatzen diet zuen eginbehar berriek kenduko dizuten denboragatik, denbora asko.

Gobernatzea ez da inoiz erraza gertatu. Behar besteko finantzaketa inoiz ez zuten proiektuak lehenetsi egin behar izan dira beti.

Baina orain are eta zailagoa da. Egiten dizkizueten eskaera eta proposamen gehienei “Ez” esan beharko diezue. Duela hamarkada askotatik Nafarroan eman izan diren laguntzak kendu beharko dituzue eta zuen taldeak suspertu beharko dituzue etengabe emango duzuen ereduarekin, Foru Administrazioak ematen dituen zerbitzuen kalitatearen goi-mailak hobetuko dituen, baliabide gutxiago izan arren.

Hori esanik, herritarrei igorri nahi nieke Nafarroak eskaintzen dien bizi-kalitatea munduko eskualde gehienek nahiko luketela.

Aurrekontuen murrizketetan ezin dugu aitzakiarik jarri eta kontura gaitzean Nafarroako Foru Administrazioak bolumen handiko Aurrekontu Orokorrak kudeatzen dituela; aurrekontu horiek 2006koen antzekoak dira, hau da, krisiaren aurreko mailetan daude.

Kontuan izan beharko dugu ere, Nafarroako gizartea ez dela duela sei urtekoa eta mundu guztian gertatzen ari diren aldaketa soziologiko bizkorak Nafarroaren egitura ere aldatu duela.

Beraz, azterketa eta egokitzapeneko ahalegin handia egin beharko dugu gure politikak errealitate berriei egokitzeko.

Animo, eta erakuts dezagun Gobernu honek funtzionatzen duela, eta ekaitz gogorraren aurrean, Gobernu honek lema garaiz zuzentzen dakiela eta ez dela bidetik ateratzen aginte-zubian dauden eztabaida luzeetan.

Finean, ea Nafarroak merezi duen Gobernua izaten asmatzen dugun.

Eskerrik asko!